



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainak 28

Vitoria-Gasteiz, 28 de junio de 2022

Eusko Jaurlaritza

ADIERAZPENA *TURTZIOZKO MANIFESTUAREN 85.* URTEURRENA

Legez eraturako Errepublikako erregimenaren aurkako matxinada militarrek gerra zibilaren txinparta piztu zuen Espainiako Estatuan, 1936ko uztailaren 18an.

Errepublikako Gorteen urriaren 1ean Euskal Estatutua onartu ondoren, urriaren 7an Jose Antonio Agirre Lekube lehendakariak kargua zin egin zuen Gernikako arbolaren aurrean: "Euzko lur ganian zutunik". Lehendakaria eta Eusko Jaurlaritza, egoerarik gogor eta kritikoenean zeuden: gerran. Etsaiak lurraldearen bi heren armen bidez okupatuta zeukan herrialde bateko lehendakaria eta gobernua ziren.

Agirre lehendakaria buru zuen gobernuan, abertzaleek (EAJkoek eta EAEkoek), sozialistek, errepublikanoek eta komunistek parte hartzen zuten. Euskadiren historiako lehen gobernua izan zen. Gobernuaren helburua zen matxinadari aurre egitea, atzeguardiako bizitza zaila antolatzea eta, azken batean, bakea irabazi eta eraikitzea.

Kabinete hura gai izan zen egoera dramatiko haietan gerra gizatiartzeko, modu positiboan gobernatzeko, Euskadi instituzionalizatzeko eta herrialdea eraikitzeko. Euskadiko gerraren zuzeneko lekuko izan zen *The Times* hedabideko korrespontsal George L. Steer britaniarraren hitzetan, kabinete horrek bederatzi hilabetetan gobernu on eta duin baten adibide polita eskaini zion munduari.

Ezin izan zen: eskopetak ehiza-hegazkinei aurre egiteko, arrantza-ontziak gerra-ontziei aurre egiteko, arrazoi indarrari aurre egiteko. Gernikak eta, aurretik eta ondoren, beste euskal herri ugari jasan zituzten bonbardaketa-entsegu anker eta krudelek eta matxinatuen nagusitasun militar nabarmenak Euskal Armadaren defentsak makurrarazi zituzten. Euskadi pixkanaka okupatu zuten.

Milaka euskal herritarrek behin betiko utzi behar izan zuten Bizkaiko hiriburua okupazioaren bezperan. Errefuxiatuen ilara luzeek —gehienak zaharrak, emakumeak eta haurrak— Kantabriarako eta beste herrialde batzuetarako bidea hartu zuten; bizitza osoa alde batera utzi, eta, heriotzatik ihesi, etorkizun ezezagunenerako bidean jarri ziren. 85 urte geroago, gure munduan oraindik ere irudi horiek ikusten dira.

Agirreraren gobernuak ekainaren 16an egin zuen Bilbon bere azken bilkura. Bilbotik Turtziozera jo zuen, Kantabriaren muga dagoen Enkarterriko herrira. Gobernuaren egoitza La Puente jauregian instalatu zuten. Berehalako okupazioa ikusirik, ekainaren 30ean lehendakariak manifestu bat kaleratu zuen. Historiarako manifestua: "Lurraldea konkistatuko zuten; Euskal Herriaren arima, ordea, ez; inoiz ez [...]Gure gurasoen lurra berreskuratzeko itzuliko gara [...]Garaipenaren egunera arte".

Gaur, 85 urte geroago, Eusko Jaurlaritzak, manifestu hura egin zen egoitza berean bilduta, honako hau adierazten du:

1. Legez eraturako Errepublikaren erregimenaren aurkako altxamendu militarra gaitzesten dugu. Altxamendu horrek eragindako gerrak diktadura luze eta beltza ekarri zuen, berrogei urtez errepresio gogorra eragin zuena eta oinarrizko eskubide eta askatasunak urratu zituen.

2. Emozio biziko omenaldia egin nahi diegu bizitza kausarik nobleenaren alde, askatasunaren alde, eman zuten gudariei eta milizianoei, haien oroimenak betiko bizirik iraun dezan. Omenaldi eta oroimen hori belaunaldi oso bati luzatzen zaio. Gerraren izugarrikeriak, eta errepresioa, espetxea eta erbestea bidegabe jasan zituen belaunaldi oso bati.

3. Pertsonaren duintasunaren balio gorenaren aldeko konpromisoa berretsi nahi dugu, baita printzipio eta balio etiko eta demokratikoen aldeko konpromisoa eta Giza Eskubideen defentsa, babes eta berme eraginkorraren aldeko konpromisoa ere. Eusko Jaurlaritzak hitz ematen du bere egingo dituela bake, askatasun, demokrazia, autogobernu, gizarte-justizia, errespetu eta elkarrizketaren printzipioak eta balioak. Printzipio horiek inspiratu zuten batasun-gobernu hura, Euskadiko gerran zein erbestean, eta gaur egun ere printzipio horiek aldarrikatzen jarraitzen dugu, Euskadirentzat eta mundu osoarentzat.

Esperientzia historiko horrekin eta Adierazpen honen edukiarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzak gerra oro gaitzesten du, barnean dela horren azalpenik berriena, Errusiaren Ukrainako inbasioa. Eusko Jaurlaritzak gatazkak ebazteko baliabide gisa indarra erabiltzea arbuiatzen du, eta indarkeriarik eza, elkarrizketa, multilateralismoa eta Giza Eskubideen defentsa eskatzen ditu nazioarteko harremanen oinarrizko printzipio gisa.

Segurtasuna

**EUSKO JAURLARITZAK 200.000 EUROKO LAGUNTZA EMANGO DIE
LUDOPATIAREN PREBENTZIORAKO ETA JOKO ARDURATSUA
SUSTATZEKO SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMEI**

Gobernu Kontseiluak dirulaguntza-deialdi berria onartu du Euskadiko irabazi asmorik gabeko erakundeek joko patologikoaren prebentzio unibertsalerako, sentsibilizaziorako eta informazioa zabaltzeko jarduerak gara ditzaten Prebentzio unibertsala herritar guztiei zuzenduta egiten dena da, eta osasuna sustatuz gauzatzen da, jokoarekiko adikziozko jokabideen arazoaren berri eta orientazioa emateko.

Deialdi berri hau Eusko Jaurlaritzak herritarrek jakinaren ganean, arduraz eta parametro osasungarrien barruan joka dezaten lortzeko hartutako konpromisoaren baitan egin da Helburu horrekin, 200.000 euroko dirulaguntzak emango dira Euskadin irabazi asmorik gabeko erakundeek jokoarekin zerikusia duten portaera arriskutsu eta problematikoen inguruan herritarrak sentsibilizatzeko egiten duten lanari eusten laguntzeko.

Lana eta Enplegua

HAUTESKUNDE BATZORDEA OSATZEN DUTEN SINDIKATUEK 737.331 € JASOKO DITUZTE

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du hauteskunde sindikalen batzordea eta lurralde-batzordeak osatzen dituzten erakunde sindikalei 2022rako diru-laguntzak ematea. ELA, LAB, CCOO eta UGTk 184.332,75 euro jasoko dituzte bakoitzak.

Idoia Mendia bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, eta 237/2000 Dekretua aplikatuz, 2022ko ekitaldirako aurrekontuan jasotako 737.331 euro banatzeko prozedurari hasiera eman zaio. Diru-laguntza jasoko duten erakundeak ELA, LAB, CCOO eta UGT dira, Euskal Autonomia Erkidegoan 1999. urteko urriaren arabera egindako hauteskunde sindikalen prozesuak kontrolatzeko eta ikuskatzeko batzordeetan parte hartzen duten aldetik.

Apirilean sindikatuek lortutako akordioaren arabera, kopuru hori berdin-berdin banatuko da ELA, LAB, CCOO eta UGTren artean, 184.332,75 euro bakoitzak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

ENERGIA BERRIZTAGARRIAREN AUTOKONTSUMOA IZAPIDETZEA ERRAZTEKO PROPOSAMENARI ARGI BERDEA EMAN DIO GOBERNU KONTSEILUAK

Gobernu Kontseiluak ontzat eman du energia berriztagarriaren autokontsumoa izapidetzea errazteko lege proposamena aintzat hartzea. Horrela, EH Bildu legebiltzar taldeak egindako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzearen alde agertu da.

Gaur Gasteizen egindako bileran, Gobernu Kontseiluak legea aldatzearen aldeko irizpidea adierazi du. Izan ere, lege horretan proposamena egin duen taldeak zenbait kasutan energia berriztagarriaren autokontsumorako instalazioetako lizentzia baldintzak salbuestea planteatzen du.

Gobernu Kontseiluaren ustez, lege proposamena bat dator energia berriztagarrietan oinarritutako eredu baterako trantsizio energetikoaren erronkarekin, energia fosilen eta kanpoko ekoizpenaren iturriekiko dugun mendekotasuna murrizteko. Era berean, bat dator Europako erakundeek arlo horretan duten ikuspegiarekin, bai eta autokontsumorako komunitate partekatuak eta tokiko energia-komunitateak sortzea sustatzen duen lege erregulazioarekin ere.

Proposamenak lizentzia salbuespena ematen die eraikinen barruan dauden ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuei. Ildo horretan, mugikortasun sisteman ibilgailu elektrikoan oinarritutako eredu baterantz eboluzionatzea zein garrantzitsua den balioetsi du Gobernu Kontseiluak, horrek azpiegitura beharrak eta erabilera instalazio berriak areagotzea ekarriko baitu.

Horregatik guztiatik, Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio lege proposamena kontuan hartzeari, bat baitator Eusko Jaurlaritzaren helburuekin, administrazio izapideak sinplifikatzeari dagokionez. Izan ere, batzuetan, oztopo dira horrelako ekimenak garatzeko.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

URDAIBAI BIRD CENTER-EK EUROPAKO DIRULAGUNTZA BAT JASO DU GAUTEGIZ-ARTEAGAKO PADURAK KONTSERBATZEKO ETA LEHENERATZEKO

- **Urdaibai Bird Center-ek garatutako proiektuaren helburua da datozen hiru urteotan Urdaibaiko padura baxu/ertainean kontserbazioko eta leheneratze ekologikoko hainbat jarduketa gauzatzea**
- **Jarduketak bideratuko dira Gautegiz-Arteagako paduretako biodibertsitate-tasak handitzera, beste hainbat ingurumen-faktoreren artean, klima-aldaketaren eraginak arintzeko**
Proiekturako dirulaguntza 482.000 eurokoa izango da, eta Europako Next Generation funtsetik iritsiko dira

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Aranzadi Zientzia Elkarteari dirulaguntza bat ematea Gautegiz-Arteagako paduretan biodibertsitate-tasak igotzearekin lotuta hainbat jarduketa gauzatzeko eta Oruetan mantentze eta leheneratze lanak egiteko, Europar Batasunak Next Generation EB funtsen bidez finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Urdaibai Bird Center-ek, Aranzadi Zientzia Elkarteak kudeatzen duen Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako hegaztien ikerketa eta dibulgazio zientifikorako zentroak, 482.000 euroko dirulaguntza jasoko du Europako funtsetik biodibertsitatearen kontserbazioa sustatuko duten jarduketetarako.

Proiektuaren helburu nagusia da biodibertsitate-tasak handitzea padurako habitatak eta horietako espezieak hobetuz, klima-aldaketaren eraginak arintzeko, beste hainbat ingurumen-alderdiren artean. Jarduketak 2021-2023rako estatu-mailako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean sartuta daude, bertan baitaude jasota lehorreko eta itsasoko biodibertsitatea kontserbatzeko, ekosistemak eta azpiegitura berdea leheneratzeko eta baso-kudeaketa jasangarrirako inbertsioak.

Azken hamar urteotan, Urdaibai Bird Center-etik padurako eta inguruko hegazti-populazioen jarraipena egin da, eta ondorioa izan da padurak kudeaketa ekologikoaren arloko hainbat neurri behar dituela. Urdaibai Bird Center-ek azken 20 urteotan metatu duen ezagutzari esker, behar bezala identifikatu ahal izan da Gautegiz-Arteagako paduretako arazo ekologikoa. Hautemandako arazo guztien artean, jarduketa bideragarrien bitartez, bai ikuspegi teknikoak bai ikuspegi ekonomikoak, arindu daitezkeenak edo ezeztatu daitezkeenak aukeratu dira, eremuko biodibertsitatearen kontserbazio-egoeran eragin positibo argia izan dezaten.

Kontserbazioko eta leheneratzeko jarduketak bost arlotan banatzen dira: Lehenengoa Gauegiz-Arteagako paduretako urmaelak leheneratzeko eta horien kontserbazio-egoera hobetzeko da. Jarduketarik aipagarrienen artean daude: marearteko ur-fluxuaren bi uhate konpontzea, arrainak eta ornogabeak sartuko direla bermatzeko (funtsezkoak dira hainbat espezieren eta, horien artean, hegaztien elikadurarako), eta marearteko urmaeleko habitatak leheneratzea landare-espezie exotiko inbaditzaileak kenduz eta uhartetxo artifizialak sortuz (hegaztien atsedenerako, elikatze eta ugalketarako lekuak dira).

Bigarren jarduketa-arloan zehazten dira hegaztien migraziorako eta negu-pasarako garrantzi handiko eremu bat sortzea Gauegiz-Arteagako Anbekoko polderra leheneratuz. Helburua da hegazti batzuk, besteak beste, mokozabal arrunta, ugaltzeko habitat naturalak leheneratzea eta beste hegazti batzuentzat ugaltze-kolonia artifizialak sortzea.

Hirugarren jarduketa-arloa interesa duten espezieen populazioen habitatak hobetzeko da, horien artean arrano arrantzalearena eta oso mehatxatuta dagoen bisoi europarrarena edo apoarmatu istilzalearena.

Laugarren jarduketa-arloak lursailak erosteko edo alokatzeko ekintzak biltzen ditu biodibertsitaterako eremu sentikorretan edo indargetze-eremuetan haiek zaintzeko.

Azkenik, dirulaguntzarekin Gauegiz-Arteagako paduretako hondakinak ere erretiratuko dira. Jaso eta erretiratu egingo dira naturan nahiz bisualki duten eragina minimizatzeko.

Biosferaren Erreserben kontserbazio-eginkizuna

Kontserbazioaren helburua lurralde bateko baliabide genetikoak, espezieak, ekosistemak eta paisaiak babestea da. Urdaibaiko Biosferaren erreserbak sustatzen du natura kontserbatzea eta naturaren erabilera jasangarria uztartzea, eta halaxe dago jasota UNESCOren Gizakiari eta Biosferari buruzko Programan.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSTATEK ETA ZERGA ADMINISTRAZIOKO ESTATU AGENTZIAK LEHEN ALDIZ SINATU DUTE INFORMAZIOA EMATEKO HITZARMENA

Astearte honetako Gobernu Kontseiluak onartu egin du Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (Zerga Agentzia) Euskal Estatistika Erakundeari (EUSTAT) datu estatistikoen informazioa emateko bete behar dituen edukiari, baldintzei eta prozedurei buruzko lankidetzaz ezartzen duen hitzarmena. Hau da bi erakunde publikoen artean horrelako hitzarmen bat sinatzen den lehen aldia.

Zerga Agentziak emandako informazioaren xedea EUSTATEk soilik estatistiketarako erabiltzea izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Planean esleituta dituen estatistika-eragiketak egiteko.

Administrazio publikoen arteko harremanetan nagusi izan behar duen elkarlanaren esparruan, bi aldeetako ordezkarien iritzia da oso onuragarria izango litzatekeela, bakoitzak bere helburuak betetzeko, alderdien arteko informazio-hornidura egonkorra eta aldizkakoa arautuko duen sistema bat izatea.

Ondasunen nazioarteko merkataritzari buruzko estatistikaren behin betiko datuak lagako dizkio Zerga Agentziak EUSTATi (Europar Batasunaren barruan eta hirugarren herrialdeekin), urtero eta Zerga Agentziaren atarian ofizialki argitaratzen denetik gehienez hilabeteko epean.

Behin Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, eta sinatzaileek, epea amaitu baino lehen, lau urtera arteko berariazko luzapena adostu ahal izango dute. Era berean, hitzarmen honetatik ez da alderdi bakoitzaren betebeharrak edo konpromiso ekonomikorik eratorriko.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 10 MILIOI EURO BIDERATU DITU IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZA ETA HOBEEKUNTZARAKO, DOKTORATU AURREKO KONTRATUEN BIDEZ

- Hezkuntza Sailak %10ean handitu du deialdi honen aurrekontua, 9.950.893 euroko kopurura iritsi arte
- Doktorego ikasketak nazioartekotzearen aldeko apustua egiten du programak
- 2022-2023 ikasturtean, 398 euskal ikertzailek izango dute Doktorego aurreko kontratua deialdi honi esker; horietatik 288 egun indarrean diren kontratu berritzeak izango dira, eta 110 aldiz laguntza berriak.

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2022-2023 ikasturtean Doktoratu aurreko Programan laguntza berriak deitu eta lehendik zeudenak berritzen dituen Agindua, doktore ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzara zuzenduak.

9.950.893 euroko diru-kopuru globala duen deialdi honek, ikertzaileen prestakuntza sustatu nahi du, Doktore titulua lortu ahal izan dezaten, eta kalitatezko ikerketa zientifikoari lotutako gaitasun eta trebetasunak eskuratu ditzaten, Doktoretza Programa baten barruan. Deialdiak bere barne hartzen du bai beka berriak ematea, eta baita aurreragoko deialdietan emanikoak berritzea ere. Zehazki, kopuru horretatik 2.480.947 euro laguntza berriak emateko bideratuko dira, eta gainerako 7.469.946 euroak lehendik indarrean zeudenak berritzeko, era honetan banaturik:

Lerroak:	Guztira
Laguntza berriak (ikerketa orokorrean)	2.385.487 €
Laguntza-berritzeak (kerketa orokorrean)	7.378.732 €
Laguntza berriak (berariazko ikerketan)	95.460 €
Laguntza-berritzeak (berariazko ikerketan)	91.214 €
guztira	9.950.893 €

Deialdi berriak aurreko ikasturtekoarekin alderatuta dakarren berritasun nagusia doktorego-ikasketak nazioartekotzearen alde egiten duen apustua da; horrela, onuradunek 4 eta 6 hilabete arteko ikerketa-egonaldia egingo dute atzerrian, ezarpen-zentroaz bestelako zentroetan. Baldintza horrek doktoregoaren nazioarteko aipamena lortzea erraztuko du. Atzerriko egonaldia doktoratu aurreko laguntzaren lehen 3 urteetan egingo da, eta modu jarraituan. Helburua da programa amaitzean prestatzen ari diren ikertzaile guztiek nazioarteko aipamena eta profila duen tesi bat izatea.

Era berean, 2021-2022ko deialdiarekin alderatuta, Hezkuntza Sailak programarako diru-kopurua % 10 handitu du (ia milioi bat euro gehiago), eta deitutako plaza berrien kopurua ere handitu egin du, desgaitasuna duten pertsonentzako plazen kupo gehigarri bat barne.

Aldi berean, berritasun gisa, deialdi honetan gehigarri bat sartu da doktoregoko irakaskuntzetan matrikula egiteak dakartzan gastuak ordaintzeko.

398 ikertzaile 2022-2023an

Horrela, 2022-2023 ikasturtean, 398 euskal ikertzailek doktoretza aurreko kontratua izango dute: 288 kontratu berrituko dira eta 110 doktoretza aurreko laguntza berri emango dira. 2021-2022 ikasturte honetan 374 euskal ikertzailek jaso dituzte doktoratu aurreko kontratu horiek: 107 laguntza berri gisa izan ziren – horietako bat neutronikaren eta partikulen azelerazioaren arlo espezifikoan –, eta gainerako 267 kasuetan, berritzeak ziren.

Doktoratu aurreko kontratuak

Laguntza hauen onuradun izango dira, unibertsitate lizentziatura edo gradu bat izanik tesi-proiektua egingo duten pertsona fisikoak, betiere egoitza EAEn dutenak. Laguntza horiek doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte, urtebeteko iraupenarekin. Kontratu hori bere ikerketa garatuko duen aplikazio-zentroarekin izenpetuko du ikertzaileak. Kontratuaren xedea izango da proiektu zehatz eta berrietan ikerketa-lanak egitea, lanaldi osoko erregimenean. Kontratua beste hiru alditan ere luzatu ahal izango da (gehienez elkarren segidako 48 hilabetez), laguntza berrituz gero.

Laguntza hauek jasotzeko aplikazio-zentroak, eta beraz, ikertzaileekin kontratuak sinatuko dituztenak, unibertsitate edo ikerketa erakundeak izango dira, publiko zein pribatuak, I+G-an ahalmen eta jarduera ezaguna dutenak. Zentro hauek izan dezakete egoitza EAEn (A modalitatea), Estatuan (B modalitatea), edo atzerrian (I modalitatea). Hirugarren modalitate honen kasuan, ikertzaile onuradunak Zientziaren Euskal Fundazioarekin, Ikerbasquerekin, sinatuko du kontratua. Kontratu horretan osagarri bat ere ezartzen da atzerriko zentrori joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko urtean.

Ikerketa orokorra eta espezifikoa

Doktoratu aurreko programak bi jarduera-ildo edo arlo nagusi ditu: ikerketa orokorreko arloa eta ikerketa espezifiko arloa. Arlo horietako bakoitzak kontratu berriak eta berritzeak jasotzen ditu.

Ikerketa orokorraren ildoak honako jakintza-arlo hauetan garatu beharreko ikerketak biltzen ditu: oinarrizko Zientziak; Bizitzaren eta Osasunaren Zientziak; Ingeniaritzak, Teknologiak eta Arkitektura; eta Gizarte Zientziak eta Giza Zientziak.

Berariazko ikerketaren eremuan, datorren 2022-2023 ikasturterako deialdi honek neutronika eta partikulen azelerazioan ikerketa bultzatzeko diru-laguntza lerroari eusten dio. Ikerketa arlo hau interes bereziko da egun Europako

Batasunean eta bereziki Euskadin, balio estrategiko handia baitu EAEko zientzia, teknologia nahiz industriaren etorkizunerako. Gainera, Euskadiko I+G+b garatzeko abagunea ere eskaintzen du. Gure erkidegoko zientzia-komunitatea arlo honetan sendotzea eta areagotzea lehentasunezko helburua da, Europako Batasunak ESS Lund espalaziozko neutroi iturriaren inguruan ezarri dituen helburu zientifikoak indartzeko. Ekimen hau, gainera, ikerketa estrategikoak bultzatzeko Hezkuntza Sailaren Ikur Estrategia berriaren baitan kokatzen da.

Neutronikarekin batera, deialdi honetan eusten zaio -berriazko ikerketa eremuaren barruan- Hezkuntza arloari ere ikerketa-ildo gisa. Helburua hezkuntzaren arloko ildo estrategiko batzuetan ikerketa sustatzea da, hala nola digitalizazioa (metodologiak eta gaitasun tekno-pedagogikoak), gaitasun zientifiko-teknologikoak eskuratzea STEAM proiektuen bidez; edo kulturartekotasuna eta eskola-arrakasta.

Arlo hau balio estrategikoko eremua da euskal hezkuntza-sistemaren etorkizunerako, eta, gainera, aukera bat da I+G+b-ren etorkizunerako, euskal hezkuntza-sistemarekin lankidetzan. Euskadin arlo horretan komunitate zientifikoa indartzea eta zabaltzea lehentasunezko helburua da Hezkuntza Sailarentzat, bikaintasuneko ikerketaren emaitzak barne hartzen dituen politikaren barruan.

Doktoratu aurreko programa hau ikerkuntzako giza baliabideak sustatzeko politikan sartzen da, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Planean (2019-2022koan) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planean; ildo horretatik, programaren helburua da lanbide-jarduera ikerkuntzara bideratu nahi duten goi-mailako tituludunen berriazko prestakuntza bultzatzea. Halaber, zientzia eta teknologia gaietan lekukoa hartuko duen belaunaldi berriaren prestakuntza sustatzea ere bada programaren xedea.

Hezkuntza

750.000 EURO LANBIDE HEZIKETA DUALEKO PROGRAMAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2022-2023 ikasturtean Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeetan ikas-ekinezko erregimenean Lanbide Heziketa Dualeko programak garatzeko dirulaguntzak deitzen dituen agindua. Deialdi honek 750.000 euroko zenbatekoa du.

Deialdi honek bultzatzen dituen Lanbide-Heziketa Dualeko programek ikasleen prestakuntza bi eremutan lantzen dute: bai ikastetxean bertan, bai lantokian (enpresan). Lanbide-gaitasunak, gaitasun pertsonalak zein sozialak hobetzea dute helburu programok, ikas-ekinezko erregimeneko hasierako Lanbide-Heziketako titulu bat lortzeko, enpresan ordaindutako lan-jarduera batekin. Programa horietan parte hartzen duten ikasleek, beraz, Lanbide Heziketako ikastetxean jasotzen duten prestakuntza ekoizpen eta lan-ingurune erreal batean jasotzen dutenarekin uztartzen dute. Horrek zuzenean dakar ikasle horiek hobeto prestatzea eta, ondorioz, prestakuntza dualeko programetan parte hartzen duten ikasleek laneratze-tasa oso altuak izan ohi dituzte ikasketak amaitzean.

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke Lanbide Heziketako zikloak (Oinarrizkoak, Goi-mailakoak edo Erdi-mailakoak) itunpean ematen dituzten Euskadiko ikastetxeen erakunde (edo pertsona) titularrak. Horretarako, 2022-2023 ikasturterako Hezkuntza Sailak onartuta eta baimenduta izan beharko dute ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Dualeko programa, ikastetxeak eta enpresa parte-hartzaileak elkarrekin lankidetzan egina izan beharko duena.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

GOBERNU KONTSEILUAK EUSKADIKO BIZIGARRITASUNARI ETA DISEINU-ARAU EI BURUZKO DEKRETUA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen Dekretua onartu du. Iñaki Arriola sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiak eta horiek hartzen dituzten eta batik bat bizitegi-erabilera duten eraikinek bete behar dituzten gutxienezko eraikuntza- eta bizigarritasun-baldintzak modu bateratuan jasotzen dituen autonomia-esparruko lehen arauaren ildo estrategikoen berri eman du. Dekretuaren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren estandarrak hobetzea eta handitzea.

Dekretuari esker, egungo etxebizitza zurrun baina erreformagarritik, etxebizitza aldakor eta malgura jauzi egingo da, hau da, etxebizitzaren banaketa aldatzeko eta bertan bizi direnen bizitzako etapetara egokitzeko aukera emango duen etxebizitzara jauzi egingo da. Izatez, Dekretuak honako alderdi hauek arautzen ditu: neurriak, banaketa eta orientazioa; kanpoko espazioak eta egonlekuak; erosotasun termikoa; ekipamendua; osasungarritasuna; argiztapen naturala; jasangarritasuna; irisgarritasuna; segurtasuna; erabilera; eta mantentze-lanak.

Etxebizitzaren tamaina eta espazioak eta bizikidetzaren unitatearen ezaugarriak lotzen ditu. Etxebizitza, gutxienez, bi pertsonak okupatzeko modukoa izango da, eta gutxienez 35 m²-ko azalera erabilgarria izango du (25 m² pertsona batek okupatzen dituen zuzkidura-bizitokiaren kasuan). Gainera, beste 4 m², gutxienez, izango ditu terraza kontzeptu gisa.

Kanpo-espazioaren kontzeptua hala finkatzen da gutxienezko etxebizitza-programan. Gainera, proiektu berrietan txerta daitezkeen errazte aldera, 10 m² bitarteko kanpoko espazioek ez dute eraikigarritasunari dagokionez konputatuko.

Dekretuak proposatzen du, halaber, espazio horiek neurri bereko begiratoki itxi batez ordezkatu ahal izatea, betiere plangintzak horretarako aukera ematen duenean, edo, are gehiago, espazio horiek alde batera utzi ahal izatea. Alabaina, azken kasu horretan, eta arauak terraza eta balkoiak ezartzeari ematen dio garrantziaren ildotik, etxebizitzaren egoteko espazioa 8 m² handitu beharko da gutxienez, eta azalera hori ondorio guztietarako konputagarria izango da.

Arauak irisgarritasun unibertsalaren irizpideetan sakontzen du, eta dagoeneko derrigorrezkoa den horretan aurrerapenak sartzen ditu, hala nola, eraikineko ibilbide eta espazio guztietarako sarbide librearen bermatzea eta sustapen berri

bakoitzean mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako etxebizitza-erreserba egitea. Horrez gain, gela bakoitzean (sukaldea, jangela-egongela, komuna eta, gutxienez, gela bat) gutxieneko neurri batzuk bete beharko dira, gerora sortutako mugikortasun murriztua duten pertsonak erabili ahal izan ditzaten edo, bestela, doikuntza txiki batzuekin egokitu ahal izan daitezten. Horrela, etxebizitza guztiak erraz egokitu daitezkeela bermatuko da, eta jauzi kualitatibo garrantzitsua izango da hori.

Dekretuaren beste ekarpen bat da ohiko konfigurazio berezia eta konpartimentatua apurtzen duen etxebizitzaren deshierarkizazioa, hau da, logela nagusi bat, zabala eta bigarren mailako beste bat edo batzuk, askoz txikiagoak (6 m²-koak batzuetan) aintzat hartzen dituen konfigurazio tradizionala apurtzen duena. Arau berriak ezartzen du logela guztiek gutxienez 10 m² izango dutela, edo 11,5 metro gutxienez biltegitratze-espazioa ere barne hartzen badute. Soilik hirugarren logela batek, halakorik badago, izan dezake 8,5 m², baldin eta egongelari aparteko beste 3 metro gehitzen bazaizkio.

Halaber, eraikinen eta etxebizitzaren diseinuari genero-ikuspegia txertatu zaio, eta, hartara, atarietan eta eremu komunetan segurtasunik eza sortzen duten zoko eta angelu itsuak saihestuko dira, eta jangela-sukaldea espazioa ahalik eta gehien integratuko da, etxeko lanak ikus daitezten eta familia-unitate osoak parteka ditzan.

Beste gai batzuk ere arautzen dira, hala nola etxebizitzaren eguzkialdi egokirako orientazioa, komun kopurua eta gela komunaren gutxieneko azalera (sukaldea, jantokia edo egongela), etxebizitzaren gela kopuruaren arabera handitzen direnak. Ildo horretatik, sukaldearen gutxieneko neurria 7 m²-koa izango da (babes ofizialeko etxebizitzetarako jada eskatzen zena); egongelarena eta komunena, berriz, 13 m²-koa eta 3,5 m²-koa izango da, hurrenez hurren.

Logela kopurua	Komun kopurua	Sukaldea (m ²)	Sukaldea + Jangela (m ²)	Egongela (m ²)	Egongela + Jangela(m ²)	Egongela + Jangela + Sukaldea (m ²)
1	1	7	11	13	14	20
2	1	8	13	14	16	22
3	2	9	14	16	18	24
4	2	10	16	18	20	26
5 edo gehiago	2	12	18	20	22	28

Bizigarritasunari buruzko Dekretuan ezarritako espazioen gutxieneko azalera eta dimentsioak

Gainera, erregelamendu bidez garatzen ditu 2015eko Etxebizitzari buruzko Legean jasotako etxebizitzaren gehiegizko okupazioa eta bizigarritasunik ezaren deklarazioa.

Dokumentuan jasotzen diren baldintza horiek guztiak aplikatuko zaizkie lehendik dauden eta zaharberritu behar diren etxebizitza eta zuzkidura-bizitokiei, eraikuntza berrikoei eta horiek hartzen dituzten eraikinei, sustapen publikokoak izan edo pribatukoak izan, libreak izan edo babestuak izan.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta 90 egunetara sartuko da indarrean Dekretua. Udalerrri guztiek 3 urteko epean eguneratu beharko dituzte beren plangintzak eta eraikuntza-ordenantza osagarriak, dekretu hau bete dadin.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

GOBERNU KONTSEILUAK ALOKAIRURAKO 60 BOE ERAIKITZEKO LEKEITIOKO UDALAREKIN EGINDAKO HITZARMENA BAIMENDU DU

Gobernu Kontseiluak ontzat eman du Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu Iñaki Arriolak Lekeitioko Udalarekin sinatutako hitzarmena, Karabiako esparru berrian alokairuko babes sozialeko 60 etxebizitza eraikitzeko.

Bi erakundeen arteko akordioaren arabera, Etxebizitza Sailak zenbait finka pribatu desjabetzeko espedientea, birpartzelazio-proiektua, urbanizazio-proiektua eta eraikuntza-proiektua egingo ditu eta, orobat, obrak kontratatu eta egikarituko ditu —bai eraikinarena, bai 6.393,65 metro karratuko esparruaren urbanizazioarena—.Bestalde, Udalak Hiri Antolamenduko Plan Berezia bultzatuko du, erabilera publikorako eraikuntzarik gabeko finka bat jasoko du urbanizatu ondoren, eta gehienez lau etxebizitza izango ditu ordezko bizitokiak emateko.

Hitzarmenak etxebizitza duina, egokia eta irisgarria izateko euskal herritarren eskubidea bermatzeko beharrari erantzuten dio, eta, kasu honetan, zehazki, Bizkaiko udalerrri horretan erroldatutako pertsonena. Izan ere, dokumentuan adierazten denez, etxebizitza-premia egiaztatuak daude errenta-ahalmen txikia duten eta etxebizitzaren merkatu librerara sartu ezin diren familia edo pertsonentzat.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK ARRASATEKO LEZETXIKIKO AZTARNATEGI ARKEOLOGIKOA BABES BEREZIKO KULTURA ONDASUN IZENDATU DU, GUNE ARKEOLOGIKO KATEGORIAREKIN

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Arrasateko Lezetxikiko aztarnategi arkeologikoa eta bere ingurua Babes Bereziako Kultura Ondasun deklaratzeko duen dekretua, Gune Arkeologiko kategoriarekin.

Lezetxikiko eremu babestua Lezetxikiko kobazuloetan eta haren azpiko galerietan (Leibar eta Lezetxiki II) dauden interes arkeologiko eta palentologikoko aztarnategiek eta Lezetxikiko Harpeako babeslekuak osatzen dute, bai eta horiek etorkizunerako bermeekin babesteko behar besteko ingurunea ere.

Lezetxikiko arkeologia-gunea babesteko arrazoi nagusiak hauek dira:

- Lezetxikiko aztarnategi guztien sekuentzia estratigrafikoaren hedadura eta potentzia, batez ere Erdi Paleolitikoko eta Behe Paleolitikoko faseetarako, zeinak Erdi Pleistozenoko azken garaira arte heltzen baitira, duela 150.000 urte baino gehiagora arte, alegia.
- Bertan aurkitu izana euskal erregistro paleoantropologikoko giza hezurrik antzinakoena; zehazki, Homo Hiedelbergensis motakoa izan zitekeen emakume baten humeroa, zeinaren datazioak 164.000 urte inguruko antzintasuna ematen baitu gutxienez. Gainera, bi hortz-pieza ere aurkitu dira, ziurrenik neandertalenak.
- Aztarnategiak euskal arkeologiaren historiarako duen balioa, bereziki 1956 eta 1968 artean José Miguel Barandiaranek zuzendutakoak, izan ere, historiaurreari buruzko ikerlarien belaunaldi oso bat aztarnategi horretan egindako indusketa-kanpainetan trebatu da, eta, 50 urte baino gehiagoan, guztiz modu aitzindari, datazio absolutuko teknika berriak eta diziplinariako azterlanak erabili izan dira hor.

Dekretua onartu ondoren, Arrasateko Udalak, eremuaren jabeak, Lezetxikiko Gune Arkeologikoa eta ingurua babesteko tresna sendoagoak izango ditu. Gainera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatuko du eremua, eta horren berri emango die Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Sailari eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Eremu horietan baimenduko diren erabilerak zientifikoak eta kontserbazioaren arlokoak izango dira, bai eta ondasunari balioa ematearen ingurukoak ere, baina, azken kasu horretan, soilik zabalkundeari dagokionez.

Gaur onartutako dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK 53.000 EUROKO EZOHIKO DIRULAGUNTZA BAT ONARTU DU ASOCIACIÓN PROFESIONAL DE ILUSTRADORES DE EUSKADI-EUSKAL IRUDIGILEAK ELKARTE PROFESIONALARENTZAT, GRAND DÉPART PAYS BASQUE 2023KO KARTELA DISEINATU ETA HAUTATZEKO

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu du 53.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea Euskadiko Irudigileak Elkarte Profesionalari, France-Pays Basque 2023ko Grand Départ Tourraren kartelaren diseinua eta gauzatzea finantzatzeko.

Asociación Profesional de Ilustradores de Euskadi-Euskal Irudigileak lehiaketa bat egin du 2023ko Tourra ordezkatzeko duen kartela aukeratzeko. Kartel finalista datorren urteko Tourraren irudia izango da eta 18.000 euroko saria jasoko du. Horrez gain, 5.000 euroko bost sari izango dira finalerdira iritsi diren gainontzeko kartelentzat.

Ezohiko dirulaguntza honen bidez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskadin dagoen talentua ezagutarazi nahi du, baita profesional horientzat beste merkatu batzuetan aukerak sortu ere. Ekimenak apustu garbia egiten du euskal ilustrazioa nazioartekotzearen alde, nazioartean duen posizionamenduaren alde. Euskadik aspaldidanik ditu artista, diseinatzaile, artisau eta grafiko gazteak, eta erakusleho bat behar dute eremu zorotik haratago ezagutzera emateko. Ekimen hau guztiz bat dator helburu horrekin.

Gobierno Vasco

DECLARACIÓN 85 ANIVERSARIO DEL MANIFIESTO DE TURTZIOZ

Un alzamiento militar faccioso contra el régimen republicano legalmente constituido prendía la chispa de una guerra civil en el Estado español el 18 de julio de 1936.

Tras la aprobación del Estatuto Vasco por las Cortes Republicanas el 1 de octubre, el 7 de octubre el Lehendakari José Antonio Aguirre y Lecube juraba su cargo ante el árbol de Gernika: "En pie sobre la tierra vasca - Euzko-lurganian zutunik". Lehendakari y Gobierno Vasco en la más dura y crítica de las coyunturas: una guerra. Lehendakari y Gobierno Vasco de un país con los dos tercios de su territorio ocupados militarmente por el enemigo.

El Lehendakari Aguirre presidió un gobierno integrado por nacionalistas vascos (del PNV y de ANV), socialistas, republicanos y comunistas. Fue el primer gobierno de la historia de Euskadi. Un gobierno constituido con el objetivo de resistir, organizar la difícil vida en la retaguardia y, en última instancia, ganar y construir la paz.

Un gabinete que, incluso en aquellas dramáticas circunstancias, fue capaz de humanizar la guerra, gobernar en positivo, institucionalizar Euskadi y construir país. Un gabinete que, en palabras del corresponsal del *The Times* y testigo directo de la guerra en Euskadi, el periodista británico George L. Steer, en nueve meses dio al mundo un bello ejemplo de buen gobierno y dignidad.

No fue posible: escopetas frente a cazas, pesqueros frente a buques de guerra, la razón frente a la fuerza. Los crueles e inhumanos ensayos de bombardeos del terror de los que fueron objeto Gernika, así como numerosas localidades vascas antes y después, y la manifiesta superioridad militar de los sublevados consiguieron doblegar las defensas del Ejército Vasco. Euskadi fue progresivamente ocupada.

Miles de vascos y vascas tuvieron que evacuar definitivamente la capital vizcaína en vísperas de su ocupación. Columnas de refugiados -en su mayoría ancianos, mujeres y niños- tomaron dirección a Cantabria y a otros países dejando atrás toda una vida, huyendo de la muerte y caminando hacia el más incierto de los destinos. Imágenes que hoy, 85 años después, nuestro mundo continúa reproduciendo.

El gobierno de Aguirre celebró su último Consejo en Bilbao el día 16 de junio. De Bilbao se trasladó a Turtzioz, municipio encartado limítrofe con Cantabria. Su sede quedó instalada en el Palacio de La Puente. Ante su inminente

ocupación, el 30 de junio el Lehendakari hacía público un manifiesto. Un manifiesto para la historia: "El territorio habrá sido conquistado: el alma del Pueblo Vasco, no; no lo será jamás [...] Volveremos a recobrar el suelo de nuestros padres [...] Hasta el día de la victoria".

Hoy, 85 años después, el Gobierno Vasco, reunido en la misma sede en la que lo hizo aquel Gobierno declara:

1. Condenar el alzamiento militar contra un régimen republicano legalmente constituido. La subsiguiente guerra desembocó en una Dictadura larga y negra, régimen que durante cuarenta años ejerció una dura represión y vulneró los derechos y libertades básicos.
